

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2014-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den uztailaren 7an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak Arabako Lurralde Historikoaren (ALH) 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena onartu zuen; txostenak Arabako Foru Aldundiaren (AFA), bere foru erakunde autonomoen (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea eta Gaztediaren Foru Erakundea) eta bere 9 sozietate publikoen kontuak izan ditu aztergai. Osoko bilkurako bi kide abstenitu egin ziren bozketa honetan.

HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du **AFaren Kontu Orokorraren** gainean; salbuespen dira kontularitzako hainbat doiketa, Diruzaintza Geldikina 54,5 milioi euroan murriztuko luketenak.

Txostenak **fiskalizazio-gai izan duen Kontu Orokorraren egoera finantzarioa** aztertu du eta 2013ko ekitaldi itxierakoaren antzekoa dela ondorioztatu du. Azaleratu diren doiketen ondoren **gora** egin dute **Diruzaintza Geldikin Erabilgarriak** -2013an 66,1 milioi eurorena izatetik 2014an 87,7 milioi eurorena izatera aldatu da- eta **zorpetzeak** -2013an 476,2 milioi eurorena izatetik 2014an 499,1 milioi eurorena izatera aldatu da.

Epaitegiak, berebat, aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla adierazi du. Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailera Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzari Independenteari igorri zitzaizkien eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

Bai Aldundiak, bai erakunde autonomoek eta sozietate publikoek zuzentasunez bete dute euren ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege araudia, nahiz akatsak azaleratu diren Gizarte Ongizateko Foru Institutuan eta Indesa 2010, SL eta Arabako Lanak, SA sozietate publikoetan; baita kudeatzeko gomendioaren figuraren erabileran ere.

Gizarte Ongizateko Foru Institutuak 3 hornidura eta 3 zerbitzu kontratatu ditu guztira 836.114 euroren zenbatekoan, ezargarriak zaizkion prozedura ireki eta/edo publizitadedun negoziatua saihestuta.

Foru Sozietate Publikoei dagokienez, akatsak azaleratu dira **Langileen atalean** (Indesa 2010, SLk bi langile finko kontratatu zituen 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 22/2013 Legea urratuz) eta **Administrazioko kontratazioaren** atalean (Indesa 2010, SLk 581.956 euroren hornigai eta zerbitzuak kontratu txiki modura kontratatu zituen, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz. Halaber, Arabako Lanak, SAK bi kontratu esleitu ditu guztira 331.984 euroan, lizitazioaren publikotasun printzipioa urratuz).

Arabako Lanak, SAK, AFAk eta Udalek eta Administrazio-batzarrek kudeatzeko gomendioaren figura baliatu zuten Arabako Lanak, SAri, besteak beste, zenbait urbanizazio eta eraikuntza proiektu eta obra zuzendaritza esleitzeko; horren aurrean Lehiaren Euskal Agintaritzak ebatzi du “egiaztatu dela Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1.1.a) artikulua urratu dela, eta horren erantzule direla AFA, Arabako Lanak, SA eta zenbait udal eta administrazio-batzar, eta AFARI eta Arabako Lanak, SAri, hurrenez hurren, 50.000 euroren eta 15.000 euroren zigor-isuna jar dakiela.”